

ZER?	ZERTARAKO?	SAILA	AURREKONTUA
BIXENTE GOIKOETXEAREN ESTATUA BERRIZTU	Diru laguntza bat lortzeko aukera zegoen eta AFak gomendatuta aurkeztu genuen	KULTURA	3.473,31 €
K.E-KO ARETOAN HOBEKUNTZAK	Argi eta soinuaren egokitzapen eta mantenimendu lanak	KULTURA	7.843,30 €
SANTANA ERMITARI HARRIA ATERA	Aurrekontua egin genuenean oraindik ez genekien harria atera ahalko zitzaion ermitari eta orain badakigu eta gainera diru laguntza eskatu dugu lan honetarako. Harria aterata uste dugu txukunago geratuko dela eta pintadak eta horrelakoak ekidingo ditugu.	HIRIGINTZA	7.502 €
AUZOETAN BUZOIAK	Auzune desberdinetan buzoi kolektiboak jartzea aztertu da eta eskaerak jasotako auzoekin pilotu gisa hastea. Eguzkierripa eta Gantzaga kasu honetan.	ZERBITZUAK	5.803,55€
FAROLA BERRIAK	Zalgo eta plaza gaineko kalekhan farolak edo argiztapena jartzeko eskaerak daude pilatuta.	ZERBITZUAK	6.236,34€
ASFALTOA	Arraga, Ametzu, Basauti, Altzaga-Gureia, Uribarriko plaza eta beheako bidea, Gorrien bidea, asfaltatzea. Urtero inbertsioak bideratzen dira udal bide sare zabala berritzen joateko.	HIRIGINTZA AUZOAK	160.354,49 €
MASKULINITATE TAILERRA	Maskulinitatea lantzeko ikastaroak eman dira eta gizon talde batek gogoz hartu ditu eta eskaera egin du gehiago garatzen joateko.	GIZARTE ONGIZATEA	1.480,14€
DG2030 AZTERKETA ENERGETIKOA	Deba Goiena 2030 ekimenean parte hartzeko aukera luzatu ziguten eta aukera ona ikusi dugu herriko energia aukeren azterketako ekimenean parte hartzeko.	OGASUNA	2.400€
GAZTE TXOKOA	12-16 urteko nerabeen aisialdian aurrera pausoak eman dira eta espazio fisiko baten beharra sortu da. Hori dela eta kiroldegian gela bat egokitzea proposatzen da.	EUSKARA- HEZKUNTZA	36.790,44€
ITUR-ZURIKO UR ARAZOA	Itur-zuriko iturriaren bueltan azken urteetan ur arazoak egon dira. Ahaleginak egin dira bertara etortzen den ura gutxitzeko baina ez dute eragin gehiegi izan, horregatik bertan akumulatzen den ura gutxienez ondo hartuko duen tubu handiago bat jartzea proposatzen da.	HIRIGINTZA- AUZOAK	12.655,39
CORREOS, PAKETERIARAKO BUZOIAK	Mezulariak gora eta behera ibiltzen dira Aramaion jendeak erositako banatzen, askotan jendea ez dago etxean eta Arrasatera joan behar izaten dira, Correoseko buzoi honekin Correosek zentralizatuko zituen mezulari lan hauek eta herritarrek aukera izango dute enkarguak bertara egiteko.	OGASUNA	1.000€
ANBULATORIOKO ARRAPALA	Anbulatoriok badauka arrapala bat baina Osakidetzak berak guri esanda ez da egokia eta ez du aukerarik ematen kamilarik sartzeko beharra izanez gero, horregatik arrapala berria egitea proposatzen da.	HIRIGINTZA AUZOAK	9.791,31€
<b>GUZTIRA:</b>			<b>255.330,27 €</b>